

DEKRETUA

SAILA: IDAZKARITZA

Nº

zka.

Azken urteetan toki-administrazioa, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa izanik, zerbitzuak hobetzeko eta zabaltzeko eta herritarrei administrazioa hurbiltzeko ildoan ari da lanean.

Halaber, lege-erreforma berriek eskatzen dute ahalegina egitea, prozedurak berritzeko eta sinplifikatzeko, ahalik eta gardentasun handienarekin lan egiteko, eta zerbitzu publikoen prestazioan kalitate estandarrak lortzeko. Horren adibide dira duela gutxi onartu eta indarrean sartu ziren lege hauek: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea. Pasaia Udalarik dagokionez, duela gutxi herritarren arretarako bulegoak ireki dira, eta administrazio-prozeduren esku-liburua onartu da.

Bestalde, gogoeta-prozesu bat abiatu da, Udalaren antolaketa instituzionala berritzeko beharri buruz, honako printzipio hauen arabera jarduteko: eraginkortasuna eta efizientzia, zeharkakotasuna, denboraren eta baliabideen arrazionalizazioa, gardentasuna, herritarren parte-hartzea, eta toki-politikaren irudia hobetzea herritarren aurrean.

Erakundearentzat berarentzat eta herritarrentzat baliagarria izango delakoan, egitura politikoa sinplifikatu, eta eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko pausoak ematen hasi da udala.

Gogoeta-prozesu horren barruan Alkateak beharrezkotzat jo du zuzendaritza-organo kolektibo bat sortzea, politikariek eta teknikariek osatutakoa, zeinaren eginkizun nagusiak izango diren sailen eta teknikarien

Durante los últimos años la Administración Local, como administración más cercana a la población, ha venido evolucionando en la línea de mejorar y ampliar los servicios que presta y acercar la administración a la ciudadanía.

Asimismo, las recientes reformas legislativas están exigiendo esfuerzos en orden a modernizar y simplificar los procedimientos y funcionar con la máxima transparencia y conseguir estándares de calidad en la prestación de los servicios públicos. Ejemplo de ello lo constituye la reciente aprobación y entrada en vigor de las leyes 39/2015 y 40/2015, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y de Régimen Jurídico del Sector Público, respectivamente. Por lo que respecta al Ayuntamiento de Pasaia, se han abierto recientemente diversas oficinas de atención ciudadana (SAC), habiéndose aprobado así mismo un manual de procedimientos administrativos.

Por otra parte, se ha iniciado un proceso de reflexión con relación a la necesaria reforma de la organización institucional del Ayuntamiento para que responda a principios de eficacia y eficiencia; transversalidad; racionalización del tiempo y los recursos; transparencia; participación ciudadana y mejora de la imagen política local ante la ciudadanía.

Desde el convencimiento de la utilidad tanto para la propia institución como para la ciudadanía en general, se han iniciado los pasos para simplificar la estructura política y contribuir a ganar en eficacia y eficiencia.

Considerando que dentro de ese proceso de reflexión desde la Alcaldía se ha considerado necesaria la existencia de un órgano colectivo de dirección, de composición mixta, política y técnica; con

arteko koordinazioa bideratzea, gaiak aztertzea eta Alkatetzari aholku ematea, eta zeharkako prozesuetan aldaketa sustatzea eta bideratzea.

Horiek horrela, eta kontuan izanik Alkatetza honi dagokiola udal gobernu eta administrazioa zuzentzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.a) artikuluekin bat; antolaketarako dekretuak edo aginduak ematea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.7. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarriarekin bat; eta udaleko administrazio-zerbitzuen egitura eta antolaketa, Tokiko Erakundearen Antolamendu, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuarekin bat; honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Udalaren antolakuntza-egituraren barruan kide anitzeko organo osagarri bat sortzea, ZUZENDARITZA TALDEA izenekoa.

Bigarrena.- Organoa horrek Udalaren administrazio kudeaketaren arloko funtzio hauek izango ditu: plangintza, koordinazioa, aholkularitza, kontsulta, proposamena, informazioa eta ebaluazioa; inolaz ere ez du eskumenik izango erabakiak hartzeko, ez bere kabuz eta ez beste udal organo batzuek eskuordetuta.

Zehazki berariazko eginkizun hauek adierazten dira:

- Udalaren sail eta azpisailtako gaien ohiko kudeaketa aztertzea.
- Sail eta azpisail batzuek komunean dituzten gaiak koordinatzea.
- Alkatetzari aholku ematea, berezkoak dituen eskumenak erabiltzean; Tokiko Gobernu Batordeari dagokion aholkularitza

funciones fundamentales de coordinación entre departamentos y personal técnico, además del análisis, asesoramiento, propuesta y colaboración con la Alcaldía, y que impulse y canalice el cambio en procesos transversales.

A la vista de lo anterior y correspondiendo a esta Alcaldía, conforme a lo dispuesto en el artículo 21.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local, la atribución de dirigir el gobierno y la administración municipal, conforme a los artículos 25.7 y la disposición adicional primera 1.c) de la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi en cuanto a la potestad de dictar decretos o instrucciones de naturaleza organizativa y conforme a la disposición adicional cuarta del RD 2568/1985, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, la estructura y organización de los servicios administrativos del Ayuntamiento,

RESUELVO

Primero.- Crear, dentro de la estructura organizativa municipal, un órgano colegiado complementario denominado ZUZENDARITZA TALDEA.

Segundo.- El anterior órgano tendrá funciones de planificación, coordinación, asesoramiento, consulta, propuesta, información, y evaluación de la gestión administrativa del Ayuntamiento, sin que en ningún caso tenga competencias decisorias propias ni por delegación de otros órganos municipales.

Concretamente, se señalan las siguientes funciones específicas:

- Análisis de la gestión ordinaria de las materias objeto de las áreas/subáreas municipales.
- Coordinación de las materias comunes a varias áreas/subáreas.
- Asesoramiento a la Alcaldía en el ejercicio de sus competencias propias, sin perjuicio del que le corresponde a la Junta de Gobierno.

eragotzi gabe.

- Lortu nahi diren helburuen izaera eta maila definitzeko garaian, Alkatetzari informazioa ematea eta proposamenak egitea; eta helburu horien lortze-maila egiaztatzen laguntzea.
- Aldaketa bultzatzea eta bideratzea zeharkako prozesuetan.
- Alkatetzak egoki irizitako beste gai orokorretan laguntzea.

- Información y propuesta a la Alcaldía respecto de la definición de la naturaleza y grado de los objetivos a conseguir, así como colaboración en el control del grado de consecución de los objetivos.

- Impulso y canalización del cambio en procesos transversales.

- Colaboración en otras cuestiones generales que la Alcaldía considere oportunas.

Hirugarrena.- Kide hauek osatuko dute organoa:

- Izaskun Gómez Cermeño, alkatea.
- Lore Suárez Linazasoro, Antolakuntza eta giza baliabideen zinegotzi ordezkaria.

- Nahikari Otermin Soroa, Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria.
- Itziar Miner Canflanca, udal kontu-hartzailea.
- Unai Rekondo Pérez, udal idazkaria.

- Jose Michelena Zubizarreta, Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Saileko burua.

- Maria Jesus Carrera Echeverria, Gizarte Ekintza Saileko burua.

- Rafel Puy Agirre, Informatika Zerbitzuaren arduraduna.

- Iñaki Ormazabal Azkoitia, Hirigintza eta Ingurumen Saileko burua.

- Jaione Urruzola Arizeta, Euskara Saileko arduraduna.

Laugarrena.- Bilkuren araubidea eta funtzionamenduari buruzko beste alderdi guztiak organoak berak ezarriko ditu, eta bestela, administrazio prozedura erkidea arautzen duen legerian kide anitzeko organoetarako aurreikusitako funtzionamendu-araubidea aplikatuko da.

Tercero.- El mencionado órgano estará compuesto por los siguientes miembros:

- La Alcaldesa, Izaskun Gómez Cermeño.
- La concejala delegada de recursos humanos y organización, Lore Suárez Linazasoro.

- La concejala delegada de urbanismo y medio ambiente, Nahikari Otermin Soroa.
- La Interventora del Ayuntamiento, Itziar Miner Canflanca.

- El Secretario del Ayuntamiento, Unai Rekondo Pérez.

- El Jefe de del Departamento de Servicios, Obras y Mantenimiento, José Michelena Zubizarreta.

- La Jefa del Departamento de Gizartekintza; María Jesús Carrera Echeverria.

- El responsable del Servicio de Informática, Rafel Puy Agirre.

- El Jefe del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente, Iñaki Ormazabal Azkoitia.

- La Responsable del Área de Euskera, Jaione Urruzola Arizeta.

Cuarto.- El régimen de sesiones y otros aspectos de funcionamiento serán establecidos por el propio órgano, aplicándose con carácter supletorio el régimen de funcionamiento de los órganos colegiados previsto en la legislación reguladora del procedimiento administrativo común.

Bosgarrena.- Dekretu honen berri ematea Udalbatzari, egiten duen lehenengo bilkuran; eta dekretua erakundearen web orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Quinto.- Dar cuenta de este Decreto al Pleno del Ayuntamiento en la primera sesión que celebre; y publicarlo en la página web institucional y el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Pasaia

Izaskun Gómez Cermeño
ALKATEA

Nire aurrean
IDAZKARIA